
ARTURO ETA KLEMENTINA

Testua: ADELA TURÍN

Irudia: NELLA BOSNIA

Itzulpena: FERNANDO REY

Kartoi gogorrean egina. 21,5 x 27 cm. 40 orrialde. 15 €.

Arturo eta Klementina (euskara)

ISBN 978-84-7681-786-5. Kalandraka-Pamiela.

2. argitalpena

-malatza, 2017-

*Udaberriko egun eder batean, bi dortoka gazte eta ederrek,
Arturok eta Klementinak,
elkar ezaġutu zuten aintzira baten bazterrean.
Eta, arrats hartan bertan, ezkontzea erabaki zuten...*

Orain dela 30 urtetik gora, Adela Turín «Dalla parte delle bambine» izeneko bilduma argitaratzen hasi zen Italian. Handik laster, Esther Tusquetsek argitaratu zuen Espainian, «A favor de las niñas» bilduman ("Neskatoen alde"). Baterako hezkuntzari eta sexuen arteko berdintasunari buruzko erreferentzia bihurtu zen liburu bilduma, eta zenbait hizkuntzatarara itzuli. Denbora pasatu bada ere, gaur egun liburu hauek behar-beharrezkoak dira oraindik.

Arturoren eta Klementinaren arteko harremanean ilusioa eta maitasuna dira nagusi hasieran, baina, pixkana, monotonia eta kartzela bihurtuko da. Klementina ez da zoriontsu eta bere buruaren jabe sentitzen, ezin ditu garatu bere gaitasunak; Senarrak gutxietsi egiten ditu emaztearen gaitasunak, eta irri egiten die haren ametsei. Ulerbera izan beharrean, errespetuz jokatu beharrean, Arturok emaztearen nortasuna ahultzen du, eta mendekotasuna sortzen. Hainbeste gauza izateak, jakina, ez dio asetzen Klementinari pertsona modura garatu nahia.

Alegia bat da, "Arrosa eta leuna" eta bildumako beste liburuen modura, helburu jakin batzuk dituen: gizarrean behar bezalako toki ematea emakumeari, eta estereotipo sexistak eta bazterkeria desagerraraztea, jokamoldeak aldatuz mundu hobea egiteko.



-
- **Gala:** giza harremanak.
 - **Adin egokia:** 5 urtetik gora.
 - **Nabarmentzeko modukoak:** "Arrosa eta leuna",
"Bonobo betaurrekodunen egiazko historia" eta "Zorioneko hondamendia" ipuinen egile eta irudigile berberak; koedukazioa, berdintasuna, askatasuna, estereotipoak.
-

Adela Turín

(Italia, 1939)

Artearen historialaria eta idazlea. 60ko hamarkadan haurrentzako literaturaren ezaugarri sexistak aztertu zituen. Milanen, Rivolta taldean hartu zuen parte (mugimendu feministari lotutako taldea). Familia patriarkalaren generoko bazterkeriari gogor egiteko asmoz, «Dalla parte delle bambine» bilduma sortu zuen, eta 1975etik 1980ra bitartean, hogeitun liburutik gora argitaratu zuen. Adela Turín eta Nella Bosnia, garai hartan, "La Rinascente" ari ziren lanean. Urte batzuk geroago, Parisera joan zen, eta han, Silvie Cromer-ekin, «Du côté des filles» elkarrekin sortu zuen, 1994az geroztik hezkuntzako materialen sexismo kasuak aztertzen dituen eta argitaletxe, erakunde eta herritarrek sentsibilizatzeko mekanismoak sortzen dituen. Gaur egun, irakurtzeaz eta bidaiatzeaz gainera, artikuluak idatzi eta hitzaldiak ematen ditu.

Nella Bosnia

(Italia, 1946)

Artea Milanen ikasi zuen, eta dekoratzaile eta estilista lana egin zuen "La Rinascente" enpresarentzat, ehungintzako produktuak sortzen. Enpresan, Lan horretan, Adela Turín ezaġutu zuen, eta, harekin batera, «Dalla parte delle bambine» bilduma sortu zuen. Italiako eta Frantziako zenbait argitaletxerentzat egin du irudigile lana.

www. **kalandraka** .com

comunicacion@kalandraka.com

www. **Pamiela** .com
etxea

soltxate@pamiela.com
